

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25eko erabakiaren bidez, Parlamentuko zerbitzuen esku utzi zuen Legebiltzarreko webguneko gardentasun moduluan modu iraunkor eta eguneratuan argitaratzea horretarako araudi-aldaketarik behar ez duten osagai eta arlo guztiak, ezertan galarazi gabe geroago erakunde honen gardentasun aktiboari buruzko araudi orokorra onestea. Horrekin lotuta, Lehendakariak adierazten du argitaratzeko prest daudela ondoko alderdiei buruzko dokumentuak: a) Komunikazio instituzionalerako gastua, b) Maiz egiten diren galderei buruzko informazioa eta kontratuen edukia argitzeko azalpenak, c) Enplegatu publikoen ordainsariak tarteen arabera, d) Parlamentariak eta enplegatu publikoek eginiko bidaia eta ikastaroak, eta e) Legebiltzarreko legelariak eginiko txosten juridikoak.

Hori guztia kontuan hartuta, Mahaiak ERABAKI DU:

1. Jasotzat ematea eta adostasuna agertzea lehen aipatu informazioa Parlamentuko webgunean argitaratzearekin.

4. Erabaki hau Parlamentuko zerbitziburuei jakinaraztea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

LEHENDAKARIA

Alberto Catalán Higuera

